ASTIGARRAGA

# G Sagardoetxea, Euskal Sagardoaren Museoa


**Harremanetarako:**

**Sagardoetxea**
Kale Nagusia, 43
20115 ASTIGARRAGA
Gipuzkoa

✆ 00 34 943 550 575
Faxa: 00 34 943 331 311
info@sagardoetxea.com
www.sagardoetxea.com







**Sagardoetxea**
Sagardoetxea sagarra, sagarrondo eta sagardoaren kultura zabo ko museo gune bat da. Museoen kontzeptu tradizionaletik desber da, sagarrondoen bizitza eta sagardoaren elaborazio prozesua aktiboan ezagutzeko aukera ematen duen leku dinamikoa baita, zak ikusiz, jardueretan parte hartuz eta produktu ezberdinak das

Sagardoetxeak museoko sagastira eta museo-gunera bisitaldiak kaintzen dizkie bisitariei. Museoko sagastian sagardo egileen tek eta sekretuak aurkituko dituzte eta sagarrondo, hazitegi, sagar desberdin eta aintzinako tolare baten bueltan ibiliko dira. Museo nean, berriz, sagarra eta sagardoaren historia, usadioaren iturbu erramintak eta elaborazio prozesua aurkituko dituzte, sagardoa kulturara gerturatuz.

**Beste jarduerak**
Astigarragak egun pasa osatzeko aukera ezberdinak eskaintzen "Santiagomendiko Sagardo Bidea" ibilbide tematikoa, pilotaleku estalia, igerilekua, aire librean bazkaltzeko guneak, Santiagom Natur Eskola, etb...



## Material didaktikoa

Sagardoetxean ahalegin handia egin dugu sagarraren kulturaren gaineko material didaktikoa osatzeko:

1) **Urtaroko laborategia**: joko, puzzle, irudi, etb... en bidez urtaro bakoitzean jarduera ezberdinak egiteko.
2) **Muztioa egiteko tresneria**: udazkenean sagardoaren elaborazio prozesua egiteko tresneria: kizkiak, pisoiak, matxaka eta prentsa. Sagardoaren elaborazio prozesua ezagutzeko eta egindako muztioa dastatzeko aukera ematen du.
3) **Sagardoaren Hiztegia**: sagardogintzaren inguruko 500 hitz biltzen ditu, besteak beste, patsa, kirikoketa, etb...
4) **Sagarrekin Jolasean**: sagarraren kulturaren inguruko bost liburuxka dira, adin-tarte bakoitzera egokituak (bisita burutu ostean talde bakoitzari banatuko zaio).
5) **"Sagardogileak aurrera" oka jokua** eta **"Balearen harrapaketa" jokoa**: Oka-jokoan galderak asmatu eta froga ezberdinak egin beharko dituzte bisitaldian ikasitako edukiak lantzeko eta "Balearen harrapaketa" jokoan, garai batean marinelek Ternuara egiten zituzten itsas bidaietan murgilduko dira joko ezberdinen bidez.
6) **Multimedia gida**: Sagardoetxeako edukiak modu interaktiboan lantzeko aukera ematen duen gida da.

## Jardueren egutegia

**Urte osoan zehar**:
Dasti ipuinkontalaria: haurrentzako ipuin moduko bisita gidatua.
**Neguan**: **landaketa garaia**
Hazien ereitea, sagarrondoen formazioa eta txertaketak.
**Udaberrian**: **sagastiak loretan**
Polinizazioa (erleen lana, ezti dastaketa eta loretik fruiturako prozesu guztia ikusteko aukera) eta sagarrondoen izurrite eta gaitzak.
**Udaran**: **sagarrak zuhaitzetan**
Ilargiaren eragina udarako inausketan eta aisialdi taldeentzako jarduera bereziak: sagardoaren kulturarekin eta naturarekin loturiko jolasak, elkarrekintza eta ingurugiro heziketa lantzeko.
**Udazkenean**: **sagarren bilketa**
Sagarra heldua dagoenean bildu, sagar ezberdinen dastaketa eta aintzinako elaborazio prozesua: sagarra pisoiekin jo, zanpatu eta lorturiko muztioa dastatu.

